



## ❖ ZINEA

### 'Agora' pelikula jarriko dute gaur

Helduentzako *Agora* pelikula jarriko dute gaur Biterin. Pelikula 4garren mendean dago kokatua, Egipto Erromatarren esku zegoenean, eta Alejandriako liburutegia du ardatz. *Agora* Alejandro Amenabarren azken pelikula da, Espainia mailan orain arte egin diren pelikulen artean aurrekontu haundiena izan duena. Gaur, 22:30etan. ||

## ❖ ELHUYAR

### Gipuzkoako egoera aurreikusteko saioa gaur Hernanin

Hemendik 20 urtera Gipuzkoa nola egongo den jakin nahi du Diputazioak eta horretarako G+20/Gazteak-500 proiektua jarri du martxan. Proiektua Elhuyarreko Aholkularitzak eramango du aurrera, eta Gipuzkoako eskualde bakoitzetan bi saio ari dira egiten. Buruntzaldeko saioak Hernanin ari dira egiten, eta gaurkoa bigarrena izango da. Bertan 20 gazte bilduko dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. ||

## ❖ A A M

### Kontzentrazioa gaur Zinkoenean

Astero bezala, AAM-k kontzentrazioa deitu du gaur arratsalderako; 20:00etan Zinkoenean. Besteak beste, salatu nahi dute azkenaldi honetan elkartzasuna adieraztea ere zigortu nahi dutela, eta baita errealitate hau isildu eta ezkutatu: «guzti honen berri ematera behartuta sentitzen gara, presoen eskubiak errespetatzea nahikoa ez eta beraien krudeltasuna senideei luzatu nahi diete. Guztia salatze eta bortizkeria honekin bukatzekei dei egiten diegu herritarrei gaurko kontzentrazioan parte hartzera». ||

Ekitaldiak goizeko 10:30etatik 14:30etara izango dira. Tartean, Uniceff-ekin lankidetzan, haurren eskubideei buruzko 20garren hitzarmena ospatuko dute eta 'Chillida eta ni' liburua aurkeztuko dute. Egun horretan ateratako etekin guztia Uniceff-i emango diote.

UMEEN Nazioarteko Eguna ospatuko dute igandean Chillida-Leku museoan. Horretarako, goiz osoko ekitaldiak antolatu dituzte, eta egun osoan ateratako dirua Uniceff fundazioari emango diote *Haurren elikadura txarrari aurre eginez* programa aurrera eramanez ahal izateko. Sarrerak 8,5 euro balioko ditu, eta 18 urtetik beherakoentzat debalde izango da. Hala ere, kausarekin kolaboratzeko aukera izango dute, sarrera ordainduta.

Jai egun berean baita ere, Uniceff-ekin lankidetzan, haurren eskubideei buruzko 20garren hitzarmena ospatuko dute. Horrez gain, *Chillida eta ni* liburuaren aurkezpena ere egingo dute.

### Goiz osoko ekitaldiak

Ekitaldiak goiz osoan zehar izango dira, 10:30etan hasi eta 14:30ak arte. Ordu bitarte horretan erakusketa ikusi ahal izango dute museora hurbiltzen direnek, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren inguruan. Hala ere, eguneko ekitaldi nagusia goizeko 11:10etatik 11:30etara izango da. Parteha-tzaileak Luis Chillida, Uniceff eta Kutxa Alberdania izango dira.

## Umeen Nazioarteko Eguna ospatzeko, goiz osoko festa antolatu dute Chillida-Lekun



Umeen Nazioarteko eguna prentsaurrean aurkeztu zuten atzo.

### Ekitaldi nagusian dokumentala eta liburu aurkezpena

Ekitaldi honetan, Uniceff bitarteko dela, *Sos Niger: una emergencia silenciosa* dokumentala eta *La isla de Lucanor* aurrentzako pelikula jarriko dituzte.

Jardunaldi berean baita ere, *Chillida eta ni* liburua aurkeztu-

ko dute, Eli Landak egina eta Albedania argitaletxeak argitaratua; Kutxa Gizarte Ekintzarekin eta Chillida-Lekurekin elkarlanean. Liburua formatu haundikoa da eta bertako protagonista Ainhoa da. Liburuaren helburua da, 56 orritan banatuta, umeei eta bere gurasoei gonbi-

tea egitea Eduardo Chillidaren obran eta bizitzan modu jolasgarri batean paseatzeko.

### 'La vuelta al mundo en 80 cajas' antzezlan

Segidan, umeei eta gurasoei zuzendutako antzezlan izango da museoan, Markeliñe taldearen eskutik, *La vuelta al mundo en 80 cajas* izenekoa. Goizeko 11:30etatik 12:30etara izango da.

Obran kontatzen da biltegi batean lan egiten duten hiru pertsonaien istorioa. Bere lana da kamioietan kaxak igotzea eta jaistea. Baina egun jakin batean, beharbada errutinarekin aspertuta edo, pertsona makinatik bereizten duen zerbait sortzen dute, jolasteko eta sortzeko gaitasuna. Horrela, kaxek duten esanahiaz gain, beste bat hartzen dute, imaginazioak eskainitakoa. Modu honetara, globoz, itsasontziz eta gameluz munduari bira ematen diote, 80 kaxa erabiliz eta hitz bat bera ere esan gabe; keinuak bakarrik erabilia.

### Txokolatada Gorrotxategik eta Bocadok eskainia

Goiza gozo-gozo amaitzeko, txokolatada antolatu dute, eguerdiko 12:30etan hasita. Txokolatada Gorrotxategik eta Bocadok eskainia izango da. ||

## ❖ INMIGRAZIOA ETA ZINEAREN BIGARREN ZIKLOA

# 'El proximo oriente' pelikula gaur

INMIGRAZIOA eta zinearen bigarren zikloa antolatu du AMHER elkarteak, eta gaurkoa aurtengo azken pelikula izango da. *El proximo oriente* pelikula jarriko dute, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Sandiusterrin. Komediazko pelikula da eta bertan kontatzen da Madrileko

Lavapias auzoan bizi diren kultura ezberdinen erlazioa.

Joan den ostiraleko pelikulan mahaingurua egin zuten Mikel Lakuntza eta Xabier Erdoziarekin, eta bertara hurbildu zirenekin inmigrazioa eta lanaren inguruan eztabai-datu zuten. ||



Mikel Lakuntza eta Xabier Erdozia.

# HERNANI POLIS

mugitu zure fitxa mueve ficha

Hernaniko ekipamendu berriak lehenesteko

**herri kontsulta** Consulta ciudadana

para la elección del equipamiento municipal prioritario en Hernani

**Bozketaren egunak** Período de votación  
Azaroak 23-29 Noviembre  
Biteri Kultur Etxea

**Kultur Gunea**  
Centro Cultural

**Igerilekua**  
Piscina

**Gudarien eta Tilosen plaza eraberrituak**  
Reformar Gudarien plaza y los Tilos



hernani  
www.hernanipolis.net



**TELEFONAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoak: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● **Gauz**: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941

**EGURALDIA**  
**GAUR** Mendebaldetik fronte bat gerturatu da eta lainoak ekarriko ditu. Hortaz, zerua ez da pasa diren egunetan bezain garbi izango. Tenperaturak behera egingo du.

**BIHAR** Hego haizeak gogor joko du eta bolada zakarrak espero dira. Zeruan lainoak eta ostarteak tartekatuko dira. Tenperatura berdin.

## Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### Zenbat!!

Argi azaldu nahi dut, alde aurretik, ni herriaren iritzia zein den jakitearen alde izan naizela lehen eta orain, batez ere herriari ukitzen dion gai garrantzitsuenetan. Baina argi utzi nahi dut, asmoa hori ez bada ere, diru publikoa alperrik gastatzea ez duela batere atsegina.

Hasieratik abiatuz, Hiritar Parte-hartzearen izenean Zenbat!! gastatu dugun aztertzeko badugu: 80.000 euro, 2008 eta 2009 urteen artean (25.000 euro Kultur Atelier-ari, 18.000 Nicola Moroni Luppieri eta 29.500

LKSi) eta zenbatek!!! parte hartu duten gobernu taldeak ezarritako sisteman: LKSeK egindako azken lanean 12 hiritarrek parte-hartu zuten, 392 inkesta erantzun ziren eta 10 elkarte eman zuten beren iritzia, beste bileretako batzbesteko asistentzia 25ekoa izanda.

Datuak horrela ikusita, argi gelditzen da asmatu duten sistema oso garestia ateratzen dela, ez dituela hernaniarrak mobilizatzen eta prozesu horien ondoren? herriaren iritzia? dela esateko nire zalantzak ditut. Baina partizipazio prozesuak hain

zuzen horretarako jartzen dira martxan.

Hobe Eusko Jaurlaritzaren teknikariek jarraitu balute, haiekin bi bilera egin ondoren argi utzi baitziguten zeintzuk ziren hurrengo urratsak, jarraitu ez ditugunak. Horrela egin bagenu, hernaniarren iritzia hobeto ezagutzeko, ziur nahiz aspaldi adostua izango genuela Hiritar Parte-hartzearen eredu on bat. Eta askoz merkeago, jakina.

Andoni Amonarraiz  
EAJ-PNVko bozeramailea

## PELOTA

### Gipuzkoako txapelketako partiduak gaur

Giupuzkoako txapelketako partiduak jokatu dituzte gaur Hernaniko pelotariak, baina dudarik gabe, garrantzitsuenak Ojuel eta Gorrotxategik jokatu dutena izango da, Aurrera Saiazen kontra. Finalerdietako partiduak izango da, eta kanporaketa bakarrera jokatu da. Partidu zaila izango da hernaniarrentzat, Aurrera Saiazeko bikotea maila oso altua ematen ari batita. Partiduak gaur, Hernanin, 21:00etan hasita.

Bestalde, gaurkoan jokatu diren partiduak ondorengoak izango dira: Oiarpe/Urkizu-Murgiondo; 19:15etan, Oiarzunen; Eibar/E. Altuna-J. Altuna; 20:15etan, Eibarren; Bergara/Xabi Santxo, 19:15etan, Bergaran; Hondarribi/Lujanbio-Lizeaga; 20:45etan, Hondarribian; Usurbil/Oiaga-San Sebastian, 19:00etan, Aginagan; Lapke/Izadi Grajal, 20:00etan, Lazkaon. ||

## ARETO FUTBOLA

### Aiurrik Umore Onaren kontra jokatu du gaur, Goizuetan

Aiurri areto futbol taldeak, Yone Boutique taldearen filiala denak, Goizuetan izango du gaur partiduak, Umore Ona taldearen kontra. Julen Giraldo adierazitakoaren arabera, oso talde

sendoa da, etxean irabazteko zaila. Partiduak gaur, gaueko 22:00etan hasita. ||

## MUSIKA

### Dj rockKaiet gaur Bukowskin

RockKaiet dj hernaniarra Donostiako Egia auzoko Bukowski tabernan izango da musika jartzen, gaur, 23:30etatik aurrera. ||

## JOCC ZIKUÑAKO AMA

### Batzarra eta afaria gaur

JOCC Zikuñako Ama zikloturista taldeak Batzar Orokorra eta afaria izango du gaur. Besteak beste hitz egingo dute diru kontuez eta zuzendaritza berriaz. Gaur, Biterin, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. ||

## SAGASTIALDE ELKARTEA

### Irteera antolatu dute

### Fuenmayorrera, datorren asterako

Sagastialde elkarteak irteera antolatu du datorren asteko larunbaterako, hilak 28. Fuenmayorrera joango dira, eta bertan Pagos del Rey-eko bodegak bisitatuko dituzte, han gosalduz. Bazkaltzera La Bastidara joango dira, Jatorrena jatetxera. Interesatuak honako bi telefonoetara deitu behar dute: 620 717 392 edo 630 848 103 ||

## GARIN TABERNA

### Mus txapelketa izango da gaur gauean

Garin tabernan mus txapelketa antolatu dute gaur gaueko, 22:15etan hasita. ||

### Datorren larunbatean, azaroaren 28an, babarrun jatea eta kontzertua

Babarrun jatea eta kontzertua antolatu dute datorren asterako, larunbaterako. Bazkarira joan nahi duenak izen eman behar du Garinen bertan, eta azken eguna datorren asteko osteguna izango da, hilak 26. Egun berean, gauean, kontzertua izango da Rude-Kanka taldearen eskutik; reggae eta antzeko musika lan-tzen dute. Hilaren 28an, gaueko 23:30etan hasita. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**Neska arduratsu bat** pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. (erreferentzi onak). Deitu: 689 813 735.

**Pertsona bat behar da taberna** bateko barran lan egiteko. Deitu: 616 589 445

**Pertsona bat behar da** Langileko lehenengo DBHko mutil bati eskolak emateko. Astean 2 egun arratsalde. Deitu: 606 149 343.

**Emakume batek** adineko pertsonak zainduko litzuzke gauez. (Erreferentzi onak). Deitu: 626 802 083.

**Telefono arreta** zerbitzurako langile baten bila gabiltza. Euskara eta Frantsesa ondo menderatzea beharrezkoa da. Interesik baduzu, Kurrikuluma bidali maria@logikaline.com edo deitu 9:00-tatik 17:00-tara 635746919 (Maria)

**Emakume bat behar da** adineko emakume bat zaintzeko goizetan. Deitu: 943 55 24 23 / 943 55 43 29 (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)

**ETXeko KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetako tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.

**Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

<b>ORDUTEGI BERRIA</b> OSTIRALA 20 09:00 - 13:30 eta 17:00 - 20:00 LARUNBATA 21 09:00 - 14:00 eta 18:30 - 21:00 IGANDEA 22 10:30 - 14:00	
AURREZ EGINDAKO JANARIAN (PLATOS PRECOCINADOS) AUKERA ZABALAI!...ETA ENKARGUZ:	
Oilaskoa <b>8,50€</b> + Patatak eta Txampaina	Albondigak <b>9,50€</b> 1kg + Sagardoa <b>mmm...!!</b>
Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32	

## HERNANIKO KRONIKAK KUDEATZAILEA BEHAR DU

Bidali zure Curriculumak, azaroaren 23a baino lehen:

- kronika@kronika.net

- DOBERA EUSKARA ELKARTEA  
LARRAMENDI 11 BEHEA  
20120 HERNANI

dobEra  
EUSKARA ELKARTEA  
Hernaniko  
kronika

**Eskatzen da:**  
- Gerentzia lanetarako gaitasuna.  
- Euskara ondo menperatzea.

**Baloratuko da:**

- Gerentzia lanetan eskarmentua.  
- Ikasketak: Enpresaritza, Goi Mailako administratza, Giza Zientziak eta Enpresa... eta antzekoak.  
- Harremanetarako gaitasuna.  
- Iniziatiba izatea.

**Eskainiko zaio:**

- Jomada osoko lana.  
- Kontratua: Hiru hilabeteko probaldia, luzatzeko aukerarekin.

BALDINTZAK BETETZEN DITUZTENEN ARTEAN EGINGO DA AUKERAKETA.

**kixkal**  
taberna

nagusia, 15  
hernani

**VINOS RIOJA**

**BETIKO GIROA !!**

KALE NAGUSIA 61,  
20120 HERNANI. TEL: 943 55 64 92